

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

VILLABONAKO UDALA

Villabona udalerrian Haurreskolak Partzuergoan matrikulatutako haurren familiei diru-laguntzak emateko deialdia eta oinarriak.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urriaren 26an eginiko bilkuran, Villabona udalerrian Haurreskolak Partzuergoan matrikulatutako haurren familiei diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia onartu zituelarik, argitara ematen dira.

Villabona, 2023ko azaroaren 8a.—Beatriz Unzue Esnaola, alkatea. (8401)

Villabona udalerrian Haurreskolak Partzuergoan matrikulatutako haurren familiei dirulaguntzak emateko Oinarriak.

Xedea:

Araudi honen helburua Villabona Udalerrian Haurreskolak Partzuergoan matrikulatutako haurren familiei kuotak ordaintzeko dirulaguntzak arautzea da. Dirulaguntza jasoko duten familiek ondorengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

1. artikulua. *Dirulaguntzaren xedea.*

Dirulaguntza honen xedea da Villabona Udalerrian Haurreskolak Partzuergoan haurren matrikulazioa igotzea. Hori dela eta, Villabonako Udalak dirulaguntzak emango dizkie, 2022/2023 ikasturtean, Haurreskolak Partzuergoan matrikulatuta dituzten haurren familiei.

2. artikulua. *Onuradun izateko baldintzak.*

1. Villabonan erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea eskaera aurkezten den datan.

2. 2022/2023. ikasturtean (2022ko irailetik 2023ko zutailera bitartean) haurrak Villabona Udalerriko Haurreskolak Partzuergoan matrikulatuta izatea.

3. Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.

4. Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batek emandako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

3. artikulua. *Dirulaguntzak zehazteko irizpideak.*

Villabona Udalerriko Haurreskolak Partzuergoan matrikulatuta dituzten haurren familiek dirulaguntza jaso ahal izateko ondorengo irizpideak kontuan izango dira.

1. Aurreko urteko, familia-unitatearen errenta estandarizatu oinarri hartuta, hau da bien zerga-oinarri orokorrak + bien PFEZren aurrezpenaren zerga-oinarriak kontuan hartuta, 18.000 €tik 30.000 €ra bitarteko diru sarrerak dituzten familiek, Villabona Udalerriko Haurreskolak Partzuergoan ordaindu dituzten kuoten % 100ekoa jasoko dute dirulaguntza moduan.

AYUNTAMIENTO DE VILLABONA

Convocatoria y bases reguladoras para la concesión de subvenciones a familiar que tienen matriculado/as a niños/niñas en el Consorcio Haurreskolak en el municipio de Villabona.

Aprobadas por la Junta de Gobierno Local en sesión de 26 de octubre de 2023 las bases reguladoras de la convocatoria para la concesión de subvenciones a familiar que tienen matriculado/as a niños/niñas en el Consorcio Haurreskolak en el municipio de Villabona y su convocatoria, se procede a su publicación.

Villabona, a 8 de noviembre de 2023.—La alcaldesa, Beatriz Unzue Esnaola. (8401)

Bases para la concesión de subvenciones a las familias que tienen matriculado/as a niños/niñas en el Consorcio Haurreskolak en el municipio de Villabona.

Finalidad de las bases:

Es objeto de las presentes bases la regulación de la concesión de subvenciones a familias que tienen matriculados a hijos/as en el Consorcio Haurreskolak en Villabona. Las familias que quieran optar a dichas subvenciones deberán cumplir con los requisitos que se detallan en los siguientes artículos.

Artículo 1. *Finalidad de la subvención.*

La finalidad de la subvención es aumentar la matriculación en el Consorcio Haurreskolak en Villabona. Por ello, el Ayuntamiento de Villabona concederá subvenciones a familias que durante curso 2022 /2023 hayan tenido matriculados a los hijos/as en el Consorcio Haurreskolak en Villabona.

Artículo 2. *Personas beneficiarias.*

1. Serán personas beneficiarias de la presente subvención aquellas personas empadronadas en Villabona.

2. Tener el curso 2022/2023 (desde septiembre 2022 hasta julio de 2023) matriculados a los/las hijos/as en el Consorcio Haurreskolak en Villabona.

3. No estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.

4. Estas subvenciones son compatibles con las subvenciones concedidas por otra institución pública o privada. De todas las maneras, no podrá darse ningún tipo de sobre-financiación. En el caso de que así suceda, se reducirá la subvención, hasta el límite máximo correspondiente.

Artículo 3. *Requisitos a cumplir.*

Las familias que tienen matriculados a hijos/as en el Consorcio Haurreskolak en Villabona y deseen beneficiarse de esta subvención deberán cumplir los siguientes requisitos:

1. Tomando como base la renta estandarizada de la unidad familiar del año anterior, es decir las bases imponibles de ambos + bases imponibles del ahorro del IRPF de ambos, las familias que tengan ingresos entre 18.000 € y 30.000 € recibirán como subvención el 100 % del importe de las cuotas abonadas en el Consorcio Haurreskolak en Villabona.

2. Aurreko urteko, Familia-unitatearen errenta estandarizatu oinarri hartuta, hau da bien zerga-oinarri orokorrak + bien PFEZren aurrezpenaren zerga-oinarriak kontuan hartuta, 30.000 €tik 50.000 €ra arteko diru sarrerak dituzten familiek, ondorengo dirulaguntza jasoko dute:

Irabaziak	Hileko dirulaguntza ordu kopuruaren arabera	
Bien zerga-oinarri orokorrak + bien PFEZren aurrezpenaren zerga-oinarriak	5 ordu zerbitzua erabiltzeagatik	8 ordu zerbitzua erabiltzeagatik
30.000 € - 50.000 €ra arteko sarrerak	40 €/hileko	58 €/hileko

Ganancias	Subvención mensual según horas de servicio utilizadas	
Bases imposables de ambos + bases imposables del ahorro del IRPF de ambos	5 horas por utilizar el servicio	8 horas por utilizar el servicio
Ingresos entre 30.000 € - 50.000 €	40 €/mes	58 €/mes

4. artikulua. *Eskaerak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.*

1. Dirulaguntza jasotzeko eskubidea dutela uste duten familiek udaletxean aurkeztu beharko dute eskaera, ondorengo agiri hauekin batera:

- Eskatzailearen NAN, AIZ edota indarrean dagoen nortasuneko agiria.
- Famili liburua.
- Villabona Udalerriko Haurreskolak Partzuergoan 2022/2023. ikasturtean (2022ko irailetik 2023ko uztailera bitartean) matrikulatuta izanagatik hauren matrikula egiaztagiriak.
- Ordaindutako kuoten egiaztagiriak.
- Bizikidetzaren unitateko kide guztien azkenengo Pertsona Fisikoen gaineko Errenta Aitorpena.

2. Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu, eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Eskaera onartua izanda ere, Udalak beharrezkoak dituen argibide eta dokumentuak eska ditzake.

Jarduera baterako dirulaguntza eskatze hutsaren ondorioz, onartu egin beharko da dirulaguntza horren emakida arautzen diren oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.

3. Eskabideak eta dokumentuak aurkezteko epea oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 2023ko abenduaren 15ra bitartekoa da, eguerdiko ordu bietan amaituko da.

Eskaerak Villabonako Udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan (Zuretzat) aurkeztuko dira, behe solairua, Erreboteko plaza z/g.

5. artikulua. *Dirulaguntzen bateragarritasuna.*

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako dirulaguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuak emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako dirulaguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori ez gainditzearen, ematekoa den dirulaguntza oinarri hauen kargura, murriztuko da.

2. Tomando como base la renta estandarizada de la unidad familiar del año anterior, es decir las bases imposables de ambos + bases imposables del ahorro del IRPF de ambos, las familias que tengan ingresos entre 30.000 € y 50.000 €, recibirán la siguiente subvención:

Artículo 4. *Solicitudes, documentación y plazo de presentación.*

1. Aquellas familias que consideren pueden tener derecho a la subvención, deberán presentar su solicitud en el Ayuntamiento, acompañada de la siguiente documentación:

- DNI, NIE o cualquier otro documento de identidad en vigor del solicitante.
- Libro de familia.
- Acreditación de haber tenido matriculados durante el curso 2022/2023 (desde septiembre 2022 hasta julio de 2023) a los niños/as en el Consorcio Haurreskolak en Villabona.
- Acreditación del correspondiente pago de las cuotas.
- Declaración de la Renta de las Personas Físicas del último ejercicio de todos los miembros de la unidad convivencial.

2. Cuando se comprobara que la documentación presentada por la persona solicitante es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes Bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la solicitud sin más trámites, de acuerdo con la normativa vigente.

Una vez admitida la solicitud el Ayuntamiento podrá solicitar cuantos documentos o aclaraciones considere convenientes.

La mera presentación de solicitud de subvención para una actividad, implica el conocimiento y aceptación del contenido de las presentes bases que regulan su concesión.

3. El plazo de presentación de solicitudes y la documentación será desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará el día 15 de diciembre de 2023, a las 14:00 horas.

Las solicitudes se presentarán en el Servicio de Atención a la Ciudadanía (Zuretzat) ubicado en la planta baja de la Casa Consistorial, Erreboteko plaza s/n.

Artículo 5. *Compatibilidad de las ayudas.*

1. Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o en las que se concontemple la misma finalidad.

2. En el caso de concurrencia con otras ayudas, el importe de la subvención no podrá superar el coste de las actuaciones subvencionadas. En dicho supuesto, se procedería, al objeto de no rebasar dicho límite, a la reducción de la ayuda con cargo a las presentes bases.

6. artikulua. Prozeduraren instrukzioa.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero, dagozkion txosten teknikoen irizpideak jarraituz, dirulaguntza eman edo ez erabakiko du eskumena duen udal organoak.

7. artikulua. Berariazko ebazpenik ez hartzea.

Herri Administrazioen araubide juridikoaren eta Administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 43. artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorri, dirulaguntza eskaerak ezetsi egingo dira baldin eta, eskaerak aurkezteko finkatutako epea amaitu eta 3 hilabeteko epean, berariazko ebazpenik hartu ez bada.

8. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Honako hauek dira dirulaguntza honen onuradunek bete beharko dituzten betebeharrak:

- Dirulaguntza gai izan dena bete-betean burutzea.
- Dirulaguntza zertarako eman den, hartarako erabili behar da.
- Villabonako Udalari aditzera eman beharko zaio, berak diruz lagundutako jarduera hau burutzeko, onuradunak beste dirulaguntzaren bat eskuratu duen.
- Onuradunek indarrean dagoen araudian ezarritako bete-behar orokorrak bete beharko dituzte.

9. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa.

1. Villabonako Udaleko Gazteria, Kirol eta Hezkuntza saila arduratuko da oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeaz.
2. Alkatetzaren Ebazpen baten bidez emango da eta, hala badagokio, ukatuko da laguntza.
3. Emandako laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, dirulaguntzaren eskaera egiteko epea amaitzen denetik hilabeteko epean.

10. artikulua. Dirulaguntza aldatzea.

Dirulaguntza ematerako orduan kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, eta nolahi ere, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik norgehiagokaren bidez laguntzak jasozten badira, emakidari buruzko erabakia aldatu ahal izango da.

11. artikulua. Betebeharrak ez betetzea.

Onuradunak deialdi honetan aurreikusten diren baldintzetako bat ez betetzeak, dirulaguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Dirulaguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datozen gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

12. artikulua. Interpretazioa.

Villabonako Udaleko Gazteria, Hezkuntza eta Kiroletako Batzordeak erabakiko du oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza.

13. artikulua. Ordezko araudia.

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeek aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Dirulaguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

14. artikulua. Dirulaguntzetarako diru izendapena.

Dirulaguntzetarako deialdi hau gauzatzeko 1 0900.480.323.00.01 2023 partida dago izendatuta.

Artículo 6. Instrucción del procedimiento.

Presentada la documentación requerida, el órgano municipal competente determinará, de conformidad con los informes técnicos correspondientes, si procede o no la concesión de la subvención.

Artículo 7. Falta de resolución expresa.

De conformidad con lo previsto en el artículo 43 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, las solicitudes de subvención se entenderán desestimadas si en el plazo de 3 meses desde la finalización del plazo de solicitudes establecido, no recayera resolución expresa.

Artículo 8. Obligaciones de las personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias de la presente subvención deberán cumplir con las siguientes obligaciones:

- Desarrollar los objetivos para los que se ha reconocido la subvención.
- Utilizar la subvención para el concreto destino para la que ha sido concedida.
- Comunicar al Ayuntamiento de Villabona la solicitud u obtención de otras subvenciones que financien las acciones subvencionadas por éste.
- Cumplir cuantas obligaciones estén establecidas con carácter general en la normativa vigente para todos los receptores de ayudas o subvenciones.

Artículo 9. Pago de la subvención.

1. La gestión de estas ayudas corresponderá al Departamento de Juventud, Educación y Deportes del Ayuntamiento de Villabona.
2. La concesión y, en su caso, la denegación de la ayuda se realizará mediante Resolución de Alcaldía.
3. El pago de las ayudas concedidas se realizará en un único pago en el plazo máximo de un mes desde la finalización del plazo para la solicitud de la ayuda.

Artículo 10. Modificación de la subvención.

Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de ayudas otorgadas por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión de la ayuda.

Artículo 11. Incumplimiento.

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones que se prevén en la presente convocatoria por parte del beneficiario, conllevará la resolución o minimización de la subvención. En todo caso será de aplicación lo señalado en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y demás normativa concordante.

Artículo 12. Interpretación.

Cualquier duda que pueda surgir en torno a la interpretación de estas Bases, será resuelta por la Comisión de Juventud, Educación y Deportes del Ayuntamiento de Villabona.

Artículo 13. Normativa supletoria.

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la normativa aplicable a las Entidades Locales, especialmente la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

Artículo 14. Cantidad destinada a subvenciones.

La cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria de subvenciones está incluida en la partida, 1 0900.480.323.00.01 2023.

Ezarritako diru-partidak ez badu behar besteko saldorik eskaera guztiei erantzuteko, udalak murrizketa bat aplikatu ahal izango du.

En el supuesto de que la partida destinada no disponga de saldo suficiente para atender todas las demandas, el ayuntamiento podrá aplicar una minimización.



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA / PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Izena / Nombre	1. abizena / 1 ^{er} apellido	2. abizena / 2 ^o apellido	NAN-AIZ-IFZ-PAS DNI-NIE-NIF-PAS

NOREN ORDEZKARITZAN (hala badagokio) / EN REPRESENTACIÓN DE (en caso de que proceda)

Izena edo sozietatearen izena Nombre o razón social	1. abizena / 1 ^{er} apellido	2. abizena / 2 ^o apellido	NAN-AIZ-IFZ-PAS DNI-NIE-NIF-PAS

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA / DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN

Kalea / Calle	Zka. Nº	Solairu a Piso	Eskua Mano	Udalerrria/ Municipio	Probintzia / Provincia
P. K./ C.P.	Telefonoak / Telefonos		e-mail		

Harremanetarako hizkuntza / Idioma de relación	<input type="checkbox"/> Euskara	<input type="checkbox"/> Ele bietan / Bilingüe
--	----------------------------------	--

ESKAERAREN HELBURUA / OBJETO DE LA SOLICITUD:

Azaldu zein jardueragatik eskatzen duzun dirulaguntza / Indicar la actividad para la que se solicita ayuda

--

- Inprimaki honi oinarrietan adierazitako dokumentazioa erantsi beharko zaio / Adjuntar a la solicitud la documentación señalada en las bases

BANKU-KONTUA (IBAN + 20 digitu) / CUENTA BANCARIA (IBAN + 20 dígitos)

Titularra: Titular:																	
Kontua Cuenta	IBAN		Entitatea Entidad	Sukurtsala Sucursal	K.Z. D.C.	Kontuaren zenbakia / Número de cuenta											
	E	S															

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

<p>Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikulua aipatzen dituen onuradun izaera lortzeko debekurik ez duela egiaztatzen duen adierazpena.</p> <p>Diruz lagundutakoaren egiazko kostua gainditzen duen helburu bererako bestelako laguntzarik jaso ez izana edo eman ez izana adierazten duen aitortpena.</p> <p>Dokumentu honetan adierazitako datu guztiak egiazkoak direla aitortzen dut, nire erantzukizunpean.</p>	<p>Declaro no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiarios a las que se refiere el artículo 13.2 de la Ley General de Subvenciones.</p> <p>Declaro no haber recibido, ni tener concedida otros tipos de ayuda para el mismo fin que supere el coste real de la obra subvencionada.</p> <p>Declaro, bajo mi responsabilidad, que todos los datos aportados en este documento son ciertos.</p>
---	---

Tokia eta eguna / Lugar y fecha	Sinadura / Firma



AMASA-VILLABONA

Villabonako Udala

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Eskaera orria behar bezala beteta.
- Eskatzailearen NAN, AIZ edota indarrean dagoen nortasuneko agiriaren kopia.
- Famili liburua.
- Villabona Udalerriko Haurreskolak Partzuergoan 2021/2022 ikasturtean (2022ko urtarriletik uztaiera bitartean) matrikulatuta izanagatik haurren matrikula egiaztagirak.
- 2021/2022 ikasturtean (2022ko urtarriletik uztaiera bitartean) ordaindu dituzten kuoten egiaztagirak.
- Bizikidetzta unitateko kide guztien azkenengo Pertsona Fisikoen gaineko Errenta Aitorpena.

Documentación a presentar:

- Instancia de solicitud debidamente cumplimentada.*
- Fotocopia del DNI, NIE o cualquier otro documento de identidad en vigor del solicitante.*
- Libro de familia.*
- Acreditación de haber tenido matriculados/as durante el curso 2021/2022 (desde enero a julio 2022) a los/las niños/as en el Consorcio Haurreskolak en Villabona.*
- Acreditación del correspondiente pago de las cuotas del curso 2021/2022 (desde enero a julio 2022).*
- Declaración de la Renta de las Personas Físicas del último ejercicio de todos los miembros de la unidad convivencial.*

Datuak Babesteko Oinarrizko Informazioa / Información Básica de Protección de Datos.

Arduraduna: Villabonako Udala. **Xedea:** Dokumentuen sarrera-eta irteera-erregistroa kudeatzea eta kontrola egitea. **Legitimazioa:** DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaien legebetebehar bat betetzeko behar den tratamendua. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua, eta Toki Entitateen Antolaketa, Jarduna eta Araubide Juridikoa arautzeko Erregelamendua onesten duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 151. artikulua eta hurrengoak. **Hartzaileak:** Legez beharitutako lagapenak. **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzea, bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azalduta dagoen bezala. **Informazio gehigarria:** Datuen tratamenduei buruzko eta Datuak Babesteko Ordezkarari buruzko informazio gehigarria Udal webaren egoitza elektronikoan dago eskura www.villabona.eus

Responsable: Ayuntamiento de Villabona. **Finalidad:** Gestión del registro de entrada y salida de documentos. **Legitimación:** RGPD: 6.1.c) Tratamiento necesario para el cumplimiento de una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento. Artículos 16 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 151 y ss del Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales. **Destinatarios:** Cesiones obligadas por Ley. **Derechos:** Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional. **Información adicional:** La información adicional y detallada sobre los tratamientos de datos y Delegado de Protección de Datos está disponible en la sede electrónica de la Web municipal www.villabona.eus